


Zertan zabilta ...
primeran pasatzen
edo
kontsumitzen
soilik?



JAIK
ETA
DROGAK

Fiestas
y
drogas

¿Disfrutas o consumes?



MARRAZKIAK: Jorge de Juan



Eskerrak DROGAK eta JAIK beti izan direla! Hauen erabilpenak ez du zergatik negatiboa izan behar, positiboki ere erabili baitaitezke. Baliagarriak suertatzen dira eguneroko monotonia apurtzeko eta aukera ematen digute haiekin ondo pasatzeko, disfrutatzeko edo haien kontsumo soila egiteko.

Zoritxarrez inguratzen gaituen errealitate tamalgarriak ez gaitu askatasunez, libreki, jaien eta drogen inguruan erabakiak hartzen uzten. Horren adierazle ditugu, besteak beste, lan prekarioak, ekonomiaren eta gizartearen ezegonkortasuna, solidaritate ezaren promozioa, sozialki, politikoki eta emozionalki dagoen segurtasun falta eta positiboki erreferentzialak izan daitezkeen eredu gabezia.

Horrela, testuinguru honetan JAIK kontsumismora bideratuak daude batez ere, gau-giroan bizitzen eta antolatzen dira gehien bat, ikuskizun edota erakustaldi hutsak bihurtzen dira, kultur industrien bultzatutakoak dira batik bat eta parte hartze eskasa izaten dute normalean.

Eta testuinguru bereberetan DROGAK mafia eta monopolio ustelek gidatzen dituzte gehien bat, hauek askatasun indibidualaren eta kolektiboaren etsai nagusiak direlarik. Gainera droga horiek gero eta gehiago kontsumitzen dira ihesbide gisa, apalankatzeko edota geldi-geldi egoteko, motibazio eza dagoelako eta autismo soziala bilatzen delako.

Jaien eta drogen arteko nahasketa, askotan nahaste-borrastea, bi modu ezberdinetara bizitzeko aukera egon daiteke. Horrela, drogak modu konpultsiboan hartu daitezke (legalak edota ilegalak), jaiak gau girora eta toki itxietara mugatu ditzakegu soilik, astean zehar sortzen den monotoniaren gain asteburuko monotonia eraikitzen joan gaitzake ("betiko martxa" asteburuan baita ere) eta helburu nagusi bezala ihesbidea, ahaztura eta egozentrismoa (orain NI, gero NI eta bihar ere NI) bilatu ditzakegu.

Baina drogen eta jaien aurrean beste aukera batzuk ere hartu daitezke, hau da, droga (legez onartuak edo onartu gabeak) kontsumo atsegingarriak eta gozagarriak egin, jaien bizipena eta esperientzia bere intentsitate osoan bizi, egunerokoarekin eta monotonoarekin hautsi eta sormena, alaitasuna nahiz konpromisoa landu, koherenteak eta solidarioak izateari utzi gabe.

Drogamendekotasunen Fenomenoaren normalizazioaren alde lan egiten dugun ASKAGINTZA herri erakundetik, bigarren aukera hau defendatzearekin batera, honen aldeko apustua egiten dugu. Aukera hau aurrera eramaten ahalegintzen gara, baina ez pentsa beti arrakastatsu suertatzen zaigunik, "drogen bizikide" izatea ez baita erraza, ezta monotonoa ere.

Edozein modutan ere, jaiak eta drogak ZU KONTSUMITZEA edo ZUK HAIKIN DISFRUTATZEA eta GOZATZEA zure esku dago. Zuk zeuk erabakitzen duzu edo agindutakoa betetzen duzu?



Afortunadamente las DROGAS y las FIESTAS siempre han existido, pueden utilizarse positivamente, romper las monotonías del día a día y posibilitar que las personas decidamos disfrutarlas o consumirlas.

Desgraciadamente las realidades que nos rodean no ayudan a que las personas podamos decidir libremente sobre las fiestas y las drogas: precariedad laboral, económica y social, promoción de la insolidaridad, inseguridad social, política y emocional, déficit de los modelos referenciales positivos...

Y, en este contexto, las FIESTAS cada vez están más centradas en el CONSUMISMO, en la noche, en el espectáculo, más dirigidas por las industrias culturales y son menos participativas.



Y, en este mismo contexto, las DROGAS están cada vez más dirigidas desde mafias y monopolios corruptos, enemigos de la libertad personal y colectiva, y se consumen cada vez más como vía de escape, apalancamiento, desmotivación y autismo social.

Consumos compulsivos de drogas (legalizadas o no), reducción de la fiesta a la noche y a locales cerrados, sustitución de la monotonía de la semana por la del fin de semana, escape, olvido, egocentrismo. Pero también se dan otras opciones con consumos placenteros de drogas (legalizadas o no), vivencias de las fiestas en toda su intensidad, ruptura de lo cotidiano y monotonía, creatividad, alegría y compromiso, sin dejar de ser solidarios y coherentes.

JAIEN INGURUKO GOGOETAK



REFLEXIONES ACERCA DE LAS FIESTAS

Droga bat edo bestea kontsumitzeko garaian talde presioa egon badago, baina honi muzin egiten dioten pertsona autonomoak baita ere. Burujabea eta askea izatea eta norberak erabakiak hartzea dibertigarria da. Ez gelditu asper-asper eginda!

Presión de grupo existe. Personas autónomas también. Ser libres y tomar decisiones propias es divertido. ¡ No te aburras!

“Helduek” egindakoa imitatzen duten umeak egon badaude, baina baita gaztearena egiten duten “zaharrak” ere. Edateak ez gaitu diferente egiten. Edateak ez gaitu ez helduagoa ezta gazteagoa egiten, askotan barregarri geratzen baikara!

Niños que imitan a “adultos”, adultos que se comportan como “niños”. Beber no es la diferencia. No nos hace mayores, ni jóvenes, pero sí, en ocasiones, ridículos.

PUNTUAren bila zabiltzala, non zauden ez dakizula aurkitu zaitezke eta ezustean puntu eta KOMArenkin topo egin dezakezu... Egoera honetan nahiko lan izango duzunez, laguntza eskatu, premia duzu eta!

Si buscas un punto, te encuentras con puntos suspensivos y terminas con un punto y coma... pide ayuda. ¡La necesitas!

Sexualitateek eskaintzen duten menua zabala eta atsegingarria suertatu dakiguke, baldin eta batere egokiak ez diren gauza arriskutsuekin edo eraso sexistekin iraintzen eta erasotzen ez badugu.

Nazka-nazka eginda eta errea bahabil... hoa antzarrak ferratzera!

Las sexualidades conforman un amplio menú placentero si no lo agraviamos con riesgos innecesarios o agresiones sexistas. Si vas “quemado”... ¡Que te pique un pollo!

Zuri gezurra dela iruditu arren, festa-egunak 24 ordu besterik ez ditu, bene-benetan!

Denbora dago disfrutatzeke, deskantsatzeko, lo egiteke... disfrutatzeke, deskantsatzeko, lo egiteke... Ez ahaztu!

En fiestas, el día dura 24 horas, de verdad. Da tiempo para disfrutar, comer, dormir... disfrutar, comer, dormir.

Drogamendekotasunen normalizazioaren alde lan egiten duen herri erakundea.

Colectivo Popular por la normalización de las drogodependencias.

www.askagintza.com

